

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -**ARAU-PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK PROPOSATUTAKOA, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZU TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZAREN INGURUAN**

EH BILDU udal-taldeak araua aldatzea proposatzen du, zerga-progresibitateko irizpideak txertatzeko, urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 9. artikuluan jasotakoaren arabera, eta honako hobari hau gehitzen du:

«9. artikulua – Hobariak» atalean, 3. puntua hau gehitu behar da:

3.- Etxebizitzetako hondakinen bilketa modalitatean, honako hobari hauek eskatu ahal izango dituzte subjektu pasiboek, baldin eta bizikidetzaren unitateak ez baditu gainditzen urteko diru-sarreraren muga hauek:

Bizikidetzaren unitatea	Hobaria		
	% 80	% 65	% 40
1	<15.400	15.400 – 17.500	17.501 – 21.000
2	<20.160	20.160 – 22.820	22.821 – 27.440
3	<21.980	21.980 – 25.060	25.061 – 30.100
4 edo gehiago	<23.660	23.660 – 27.020	27.021 – 32.340

Hobari horren onuradun izateko, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiek etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute eskaera aurkeztu aurretik.

Bizikidetzaren unitate hartuko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikuluan araututakoaren arabera.

Urteko diru-sarrerak zenbatzeko, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztien aurreko urteko PFEZaren aitortzenaren likidazio-oinarria hartuko da kontuan. PFEZaren aitortzena aurkeztu ez badute, aurreko urteko etekin gordinak hartuko dira kontuan (nominak, ondare-sarrerak...).

Hobari horretaz baliatzeko, ordenantzan ezarritako konpentsazio-kuotaren zuzenketaren onuradun ere izan beharko du subjektu pasiboak, bai konpostatze-sistema edukitzeagatik edo biohondakin-edukiontzia erabiltzeagatik.

Donostia, 2023ko abuztuaren 23a.

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea